

## GIL 107 Karrantzako kolubioiak



Reluso mendiaren oineko kolubioiak.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 15' 56" N  
Long.: 3° 24' 52" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 466.363,89 m  
Y: 4.790.414,01 m

### Nola iritsi

Ranero haitzetako SW-ko hegalean daude. Ikuspegi ona dago CA-150 errepidearen eta Gijaba (Kantabria) Karrantzarekin (Bizkaia) lotzen duen BI-630 errepidearen arteko bidegurutzetik.





Reluso mendiaren oineko kolubioiak.

## Deskribapena

Kolubioiak mendi-erliebeen oinetako detritu-metakinak dira. Masa handi fluidizatu gisako arroka-luiziek eratzen dituzte, zeinek meteorizazioaren eraginez, gelifrakzioz edo beste faktore batzuen eraginez askatutako arroken bolumen handiak higiarazten baitituzte. Abiadura handia hartu ohi dute, eta metakin kanalizatuak sortzen dituzte. Metakin horiek konoak eratzen dituzte mendien oinetan, klasto angelutsuz osatuak: handiagoak iturritik urrun dauden zonetan, eta txikiagoak konoaren goialdean.

Karrantza eta Ranero mendiak pikor fineko hareharriz eta kareharri hareatsuz osatuta daude oinaldean, eta kareharri urgondar masiboz —tipikoak sakonera txikiko plataforma urgondarretan— erliebe malkartsuetan. Azken horiek modelatu karstiko oso garatua dute, hala endokarstikoa (Pozalaguako leizea, GIL 64, Torca del Carlista, GIL 67) nola exokarstikoa, dolina ugarikoa eta oso lapiaz markatukoa. Aldi periglaziar batean, krioklastiak litotipo karbonatuei eragiten die nagusiki, eta bretxa heterometrikoak eratzten ditu, bloke karedunez osatuak, batzuetan matrize lutitiko-hareatsu batean bilduak edo kaltzitaz zementatuak (zirkulu gorria aireko argazkian).

Metakin horien interesa Karrantza ibaiko ibai-terrazekin duen erlazio estratigrafikoan datza.

Ranero haitzaren oineko gaur egungo kolubioiak (zirkulu gorria aireko argazkian) landarez estalita agertzen diren kolubioi fosilek inguratuta daude (2. irudia).



Ranero haitzaren oineko kolubioiak.

### Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL16, GIL17, GIL18, GIL 67, GIL 107, GIL 138, GIL 144, GIL 145, GIL 146.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 108.

### GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					



Kolubioi-metakinen eta Karrantza ibaiaren gaur egungo ibilguaren gainetik +20 m-ra dagoen T1 terrazaren arteko erlazioa (Jatorria: Vidal, et al, 2001).

Karrantza ibarraren behealdearen mapa geomorfologikoa (Jatorria: Vidal, et al, 2001).

## Bibliografia espezifiko

- Gutierrez Elorza, M. (2008): *Geomorfología*. Arg.: Miguel Martín Romo. 898 or.
- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/60-I-III.pdf>
- Vidal, R., Prieto, J.O., Cantero, M.A., Ortiz, J. eta Torres, T. (2001): "Estudio geomorfológico de la zona inferior del Valle de Carranza. Alrededores de la Cueva de Sta. Isabel de Ranero. Bizkaia" – País Vasco. *Munibe*, 51, 3–124.